

# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai urriaren 18an

## Hilma af Klint

Babeslea



Artearekin eta kulturarekin dugun konpromisoaren baitan, Iberdrolarentzat pozgarria da oso Guggenheim Bilbao Museoak Hilma af Klint artistaren obrari eskaintzen dion erakusketa monografikoa sustatzea.

Af Klintek interes handia erakutsi zuen gai filosofiko, espiritual eta esoterikoekiko, baina baita zientifikoekiko ere. Hala, giza ikusmenak hauteman ezin dituen korronteak eta energiak islatu zituen bere lan berezietan, errealitatea ikuspegi berri batetik atzeman eta, horrela, egia gorenera hurbiltzeko asmoz.

Bere sorkuntza-lanaren indarrak, bere irudi boteretsuek, erabiltzen zituen kolore ausartek eta bere koadroen sinbologia konplexuak agerian uzten dute margolari suediarrek aurrea hartu ziola bere garaiari bai artearen arloan (abstrakzioaren aitzindaritzat jotzen da), bai arlo kontzeptualean. Hainbestearino non bere azken nahietan adierazi baitzuen bere obrak ezingo zirela ikusgai jarri gutxienez 20 urte igaro arte. Beraz, bere garaian oharkabean pasa zen artista dugu Af Klint, ez ordea arrakastarik izan ez zuelako, baizik eta publikoa bere sorkuntzak ulertzeko prest egongo ez zela sinetsita zegoelako.

Espiritualtasuna pinturaren bidez adierazi nahi horretan, Af Klint lengoaia berritzaile batez baliatu zen, irudi geometrikoz, forma organikoz eta iturri ugaritatik hartutako zeinuz eta sinboloz betea. Aurretik existitzen ziren motibo eta erreferentzietatik abiatuta, Af Klintek ezohiko irudi berriak asmatzen eta irudikatzen zituen, eta ikonografia harrigarri bat sortu zuen haiekin: azken hamarkadetara arte interpretatu ezin izan diren kodez osatutako unibertso bat.

Horregatik guztiagatik zeharo atsegingarri zaigu Hilma af Klinten arte konplexu eta apurtzaile bezain liluragarriaz Bilbon gozatu ahal izatea.

Ignacio S. Galán  
Iberdrolako Presidentea

## *Hilma af Klint*

- Datak: 2024ko urriak 18 – 2025eko otsailak 2
  - Komisarioak: Tracey R. Bashkoff, Bildumen zuzendari seniorra eta arte-arduradun seniorra, Solomon R. Guggenheim Museum, eta Lucía Agirre, arte-arduraduna, Guggenheim Bilbao Museoa
  - Babeslea: Iberdrola
  - Hilma Af Klint Fundazioaren lankidetzarekin
- Artista suediarrek, bere sinesmen espiritual sendoetan oinarritutako arte abstraktu berri bat landu nahian, alde batera utzi zuen pintura-arloaren tradizioan jasotako prestakuntza.
  - Hilma af Klintek ia hamarkada bat eman zuen *Tenplurako pinturak* margolan-multzoa sortzen: saiakera erradikala, mundu behagarriaz haraindiko errealitate espiritual eta transzendenteari adierazpen bisual bat aurkitzeko ahalegina.
  - Bere bizialdian oso gutxitan erakutsi zituen bere lan berritzaileenak, eta ia mende bat geroago jaso zuen bere obrak merezitako aintzatespena.

Guggenheim Bilbao Museoa *Hilma af Klint* erakusketa aurkeztzen du. Af Klint (Stockholm, 1862–1944) artista suediarren ibilbidearen ikuspegi osatu bat da eta bertan izango dira ikusgai bere hasierako lanak, gai tradizionaleri lotuak, marrazki automatikoak eta sail nabarmenenak —esaterako *Tenplurako pinturak*, *Pertzeval* edo atomoari eskainitakoa— baita azken akuarelak ere.

Artistak bere bizialdian hainbat erakusketetan parte hartu bazuen ere, bere margolan figuratiboak jarri zituen ikusgai batez ere eta, oso tarteka, margolan abstrakturen bat. Horrelako lanak ez zituen inoiz artearen mundu konbentzionalaren testuinguruan aurkeztu. Izan ere, gogo berdineko komunitate espiritualekin partekatu nahi izan zituen; baina, ahalegindu arren, ez zuten harrera onik izan. Mundua oraindik bere obra onartzeko prestatuta ez zegoela jabetuta, hura gorde eta sailkatzeaz arduratu zen Af Klint, geroko gizartera modu artikulatu batean iritsi zedin. Hala, ia mende bat igaro zen bere arteak merezitako aintzatespena jaso zezan.

1906an, Hilma af Klintek bere proiekturik garrantzitsuena eta berritzaileena hasi zuen: *Tenplurako pinturak*. Ia hamarkada bateko lana da eta 193 margolan eta marrazki biltzen ditu guztira. Horietan, artistak formalki ikasitakoa alde batera utzi eta arte berri bat lantzeari ekin zion: arte ez objektiboa. Horrelako lanen abiaburua izan ziren artistak espiritismoarekin eta beste pentsamendu-sistema batzuekin —Arrosagurutze ordenaren irakaspenak, teosofia eta Rudolf Steinerren antroposofia— izandako harremanak.

*Tenplurako pinturak* inoiz eraiki ez zen tenplu helikoidal batean instalatzeko sortu zituen eta begi hutsez ezkutuan dagoena esploratzen dute, interes handiko gaia garaiko mugimendu zientifiko eta espiritualentzat, baita Af Klint eta beste artista moderno batzuentzat ere.

## ERAKUSKETAREN IBILBIDEA

### 205 aretoa

#### **Hastapenak**

Meritu militarrengatik noble izendatutako familia batean jaioa, Hilma af Klintek hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko pribilegioa izan zuen. Bere aita, kartografo bikainez osatutako familia bateko kidea zena, itsas komandante izatera iritsi zen eta astronomia, nabigazio, matematika eta nautika irakasle ere izan zen. Hala, artistak kartografiaraz eta beste zientzia batzuez zuen ezagutzak eragin nabarmena izan zuen bere pintura eta marrazki espiritualetan.

Gainera, familiatik zetozkion ezagutzez gain, artearen arloan prestakuntza tradizionala jaso zuen Suediako Arte Ederren Errege Akademian. Aipatzekoa da akademia hura izan zela emakumeei modelo bizi bat aurrez aurre zutela marrazten utzi zien lehen erakundeetako bat.

#### **Marrazki espiritualak, Bostak**

Bere garaikide askok bezala, Hilma af Klintek ez zituen lehen ikusten mundu espirituala eta zientifikoa, kontrakoa baizik: biek balio zuten egia gorenera iristeko. Hala, artistaren interes horrek espiritismoko saioetan parte hartzera bultzatu zuen, erlijio tradizionalak gaitzetsi arren garai hartan nahiko zabalduak zirenak.

1896an Hilma af Klintek eta Anna Cassel, Cornelia Cederberg, Sigrid Hedman eta Mathilda Nilssonek Bostak (De Fem) taldea sortu zuten. Emakume haiek maiz biltzen ziren espiritismoko saioak egiteko, Haraindikoarekin harremanetan jartzeko eta beren esperientziak testuen eta marrazki automatikoen bidez bideratzeko; erakusketan ikus daitezke horien adibideetako batzuk.

#### **Jatorrizko kaosa, I multzoa, WU/Arrosa saila (Tenplurako pinturak)**

Hilma af Klinton ustetan, Bostek egindako saioetan bideratutako espiritu batek egin zion *Tenplurako pinturak* saila egiteko enkargua. Artista 1906an hasi zen lanean ziklo horretako lehen azpisailean, *WU/Arrosa* izenekoan; W letrak materia eta U-k espiritua adierazten dute, WUa dualtasuna da beraz. (Bere koadernoetan agerian geratzen da letrak esanahi ugari dituztela artistarentzat)

Arrosaren motiboa Arrosagurutze ordenari lotuta dago, alkimisten ezagutza esoterikoarekin zerikusia duen ordena sekretua. Garaiko elizaren dogma zurrunaren kontra zeuden kristauek sortu zuten XVII. mendean. Gurutze Arrosa edo Arrosa Gurutzea da haien ikur nagusia. Af Klintek eta haren zirkuluak erdian arrosa zuen gurutzadun aldare baten aurrean egiten zituzten espiritismoko saioak.

*Tenplurako pinturen* lehen multzoa 26 mihisek osatzen dute, *Jatorrizko kaosa* izenburupean, eta munduaren sorreraren inguruko ikasbide teosofikoekin daude lotuta. Mihise horietan, margolariak ideia teosofiko bat du ardatz: munduaren hastapenetan batasun bat zegoen, gero apurtu zena, eta ondorioz bizitza kreazioaren hasieran banandutako kontrako indarrak (ongia eta gaizkia, maskulinoa eta femeninoa) berriro batzeko bilaketa-lan bat baino ez da.

Bi urte lehenago, Hilma af Klint Elkarteko Teosofikoan sartu zen. Teosofia New Yorken sortutako mugimendua da, errealitate espiritual sakonago bat ezagutzea xede duena, intuizioaren, meditazioaren eta giza kontzientzia gaitzeko beste bide batzuen bidez.

### **Eros saila, II multzoa, WU/Arrosa saila (Tenplurako pinturak)**

Hilma af Klintek *Arrosa sailaren* barruan hasitako hurrengo multzoa *Eros* deitzen da, ugalkortasunari eta desioari lotutako maitasunaren jainko grekoa bezala. Bertan, artistak aurkakoak diren indar maskulinoak (kolore horiarekin irudikatuak) eta femeninoak (kolore urdinarekin irudikatuak) orekatzeko elementuak sartzen ditu.

### **206 aretoa**

#### **Figura-pintura handiak, III multzoa, WU/Arrosa saila (Tenplurako pinturak)**

Hamar margolan hauek 1907ko maiatza eta abendua bitartean eginak dira. Lehenengoan, emakume batek beltxargarekin egiten du bat: lumaz estalita du soina, eta bere gorputzetik bi beltxarga-buru ateratzen dira. Teosofiaren sortzaile Helena Blavatskyrentzat, beltxargak, mitologiarekin eta kondaira zaharrekin duen harremanaz gain, espirituaren handitasuna irudikatzen du.

Sail honetako lehen lau lanetan, maskulinoa eta femeninoa bereizita daude: zuzenean ukitzera iritsi gabe, bitarteko elementuekin konektatzen dira, besteak beste espiralarekin, edo laugarren mihisean agertzen den giza irudien ilara batekin. Horrela, konposizio trianguluar bat eratzen da, gizona horiz dagoela ezkerrean, eta emakumea mantu urdin sotil batekin eskuinaldean.

Irudirik ageri ez den bosgarren lanaren ondoren, maskulinoak eta femeninoak bat egiten dute eta, behin eta berriro, atzera heltzen zaio bizitzaren ideia teosofikoari, kreazioaren hasieran bat ziren kontrako indarrak batzeko bilaketa-lanean.

### **207 aretoa**

#### **Zazpi puntako izarra, V multzoa, WUS/Zazpi puntako izarra saila (Tenplurako pinturak)**

Tradizio erlijioso eta okultista askotan erabiltzen den sinboloari erreferentzia egin zion Af Klintek *Zazpi puntako izarra* izena duen lehen multzoan. Margolan horien tamaina handituz joan zen pixkanaka. Artistak idatzita utzi zuenez, gidari espiritualek zazpi koadroko hiru multzo margotzeko agindu zioten, bakoitza zazpi eguneko tartean. Sail honetako lehenengoaren erabilerak bere marrazki automatikoena gogorarazten du, nahiz eta kontrolatuagoa izan. Bestetik, bere obran abstrakzio modernoari lotuko zaizkion ezaugarri batzuk agertzen hasten dira, nola diren kolorearen eta konposizioaren murrizketa eta sakontasun inplizitu baten falta pinturan.

#### **Eboluzioa, V multzoa, WUS/Zazpi puntako izarra saila (Tenplurako pinturak)**

*Tenplurako pinturatan* ari bitartean, Hilma af Klintek ez zuen bere ingurukoak ez zirenei lan haiek erakusteko ohiturarik. Dena den, miresmen handia zion Rudolph Steiner —Alemaniako Elkarte Teosofikoaren burua— gonbidatu zuen Stockholmen zuen estudiora, bere lana ikus zezan. Af Klint etenik

gabe ari zen lanean bere *Tenplurako pinturetan*. Hala, 1908ko otsaila eta apirila bitartean, hiru egenez behin amaitzen zuen mihise bat.

Sail horretako margolanek eboluzioaren teoriei buruzko erreferentziak biltzen dituzte, garai hartan oraindik ere eztabaida pizten jarraitzen zutenak —1859an Charles Darwinen *Espezieen jatorria* argitaratu eta mende erdira—. Hala ere, teoria horiek ez dira Af Klintek eboluzioaren gaiari heltzeko erabilitako iturri nagusia. Bere hurbilketak zerikusi gehiago dauka Steinerren eta teosofiaren ideiekin, zeinentzat eboluzioa prozesu espiritual bat den, eta horren bitartez eboluzionatzen du arimak jainkozkora hurbiltzeraino.

### **209 aretoa**

#### **Hamar nagusiak, IV multzoa (Tenplurako pinturak)**

1907ko irailean, Hilma af Klintek errebelazio bat izan zuen, zeinak “edertasun liluragarria darien hamar koadro” sortzera bultzatu zuen, munduari gizakiaren bizitzako lau aroen ikuspegia erakutsiko ziona: haurtzaroarena, gaztaroarena, helduaroarena eta zahartzaroarena. Hurrengo hilabetean, *Hamar nagusiak* sailean hasi zen lanean.

Lurrean margotu zituen ziurrenik sail horretako lan batzuk, garai hartan ezohikoa zen tamaina monumentala baitzuten. Af Klintek oso azkar osatu zituen gainera, gidari espiritualen jarraibideak bete ahala. Errenazimentuan erabilitako tenplearen teknikarekin margotu zituen, urte batzuk lehenago artista suediarrek bidaia batean miretsitako Florentziako elizetako aldareak gogora ekarriz. Izan ere, Errenazimentukoak bezala, Hilma af Klinten arteak gogoeta espirituala pizteko balio du.

### **208 aretoa**

#### **Beltxarga, IX multzoa, SUW saila (Tenplurako pinturak)**

1908an hasita, Hilma af Klintek lau urteko atsedena hartu zuen *Tenplurako pinturak* sailaren sortze-lanean. 1912an haiei berriro heldu zienean, artistaren ustetan espirituek gidatzen jarraitzen zuten, baina beste modu batean: zeresan handiagoa du berak oraingoan koloreak eta konposizioak hautatzerakoan.

1915eko mihise horietan beltxargen bilakaera bat ikusten da; gero eta abstraktuagoak eta geometrikoagoak ageri dira. Hasiera batean zuri-beltzean margotuta daude, hori eta urdin kolore-ukitu arinekin, eta argitasunaren eta iluntasunaren, bizitzaren eta heriotzaren, edo maskulinitasunaren eta femeninitasunaren dualtasunak transmititzen dituzte. Sailak aurrera egin ahala, beltxarga konposizio geometrikoetan desegiten da. Hala ere, azkeneko margolanean berriro heltzen dio figurazioari, eta elkarri lotuta ageri dira beltxargak, sinbologiaz betetako forma geometrikoekin batera, tartean hiperkuboa.

### **204 aretoa**

#### **Jakintzaren zuhaitza, W saila (Tenplurako pinturak)**

1913 eta 1915 urte bitartean Hilma af Klintek *Jakintzaren zuhaitza* margotu zuen, Biblian jasotako munduaren hasierari buruzko historiarekin lotuta. Lanotan uztartuta ageri dira kristau iruditeria eta artistaren sinesmen mistiko eta teosofikoak.

Margolan horietan kurba apainduak, kolore hitsak eta naturatik hartutako motiboak erabili zituen, garaian oso zabaldua zegoen Art Nouveau estiloan inspiratutako dekorazio-elementuekin eta diagrama zientifikoekin konbinatuta. Zuhaitz baten siluetak bi esferen erdigunea zeharkatzen du: behekoak lurterra irudikatzen du eta goikoak, organikoagoa, jainkozkoa. Kaliza, ontzi sakratua, tamaina, kolore eta konposizio desberdinetan agertzen da, energia igorritz aurkakoen elkargune gisa.

### 203 aretoa

#### **Usoa, IX multzoa, SUW saila (Tenplurako pinturak)**

1915ean Hilma af Klintek *Usoa* izeneko saila hasi zuen. Hegazti hori, kristautasunarentzat, Espiritu Santuaren sinbolo eta jainkozkoaren mezularia da. Mihiseetan forma abstraktuak eta sinbolismo figuratiboa eta kromatikoa agertzen hasten dira. Ongiaren eta gaizkiaren arteko gatazka irudikatzen du San Jurgi eta herensugearen arteko borroka mistikoarekin. Artistak bere oharretan dioenez, San Jurgi bere alter egoetako bat da, eta herensugea garaitzeak iluntasuna garaitzea adierazten du.

#### **Erretaulak, X multzoa eta Gizakien kastitatea, Azken margolana (Tenplurako pinturak)**

1915ean amaitutako hiru erretaula horiek osatzen dute *Tenplurako pinturen* azken multzoa eta bilduma. Af Klintek tenplurak nolakoa izan beharko lukeen azaldu zuen koaderno batean: eraikin ia biribila, hiru mailakoa, eskailera kiribil batez lotuak. Lau solairuko dorre batek, goialdean aldare-gela bat barruan duenak, hartuko lituzke margolan hauek.

Erretaulak, antza, eboluzioaren teoriaren bertsio teosofikoarekin lotzen dira. Horren arabera eboluzioa bi norabidetan gertatzen da: gorantz, fisikotik espiritualera, eta beherantz, jainkozkotik materialera. Tenplurako bere proiektu osoaren forma, kolore eta motiboen gailurra da erretaulen saila. Margolan horiek garrantzi handikoak ziren artistarentzat, eta arte erlijioso tradizionalan askotan erabiltzen ziren metalezko xafiak gehitu izanak azpimarratzen du hori. Metalaren distirak argitasuna ematen die margolanei. Bere bizitzako lanik garrantzitsuenaren amaitutzat eman zuen arren, Hilma af Klintek azken lan bat egin zuen, *Gizakien kastitatea* izeneko mihise txiki bat.

### 202 aretoa

#### **Pertzeval saila eta Atomoa saila**

*Tenplurako pinturak* osatu ondoren, 1916an Hilma af Klintek *Pertzeval saila* hasi zuen. Izenburua Arturo erregearen kondairan aipatzen den mahai biribileko zaldunari dagokio, Grial Santuaren bila joan zenari. Artistak aintzira ondoan zeukan etxean hamar astetan egin zituen sail horretan beste behin ere espirituen mundutik jasotako mezuen esanahiaren bila margotzen jarraitu zuen.

1917an estudio bat eraiki zuen bere etxearen lurretan, eta urte hartan bertan atomoaren inguruko saila egin zuen. Teosofoen arabera atomoa iragarmenaren bidez ikus daiteke. Naturako munduarekin liluratuta zegoen Af Klintentzat, berriz, kosmoserako atea dira atomoak. Bere oharretan artistak adierazi zuenez, atomoak batasunera iritsi arte burutzen duen garapen-prozesua berak sinesten zuen bide espiritualarekin aldera zitekeen.

### Sail geometrikoak eta Akuarelak

1917 eta 1920 urte bitartean, Af Klinten lana trantsizio-aldi batean zen. Garai hartan are gehiago hurbildu zen antroposofiaren teoretara. Artistak luzaroan zaindu izan zuen ama zendu zen 1920an. Urte hartan bertan, Af Klintek antroposofiaren egoitzan onartua izatea eskatu zuen, eta etapa berri bati ekin zion ordutik.

Bere lan geometrikoetan gero eta kolore gehiago ikusten da, zirkuluak eta gurutzeak ageri dira orbitatzen, eta forma geometriko handiagoekin egiten dute topo: indar espiritualen arteko harremanak deszifratzeko eta ikusezina erretratatzeko saialdi horretan jarraitzen du artistak.

1922an, Steinerren eraginpean —haren ustetan mundu naturala arretaz behatuz gero espiritualtasuna esperimentatu ahal da— Af Klintek arteari heltzeko beste modu bat aukeratu zuen eta *Lore eta zuhaitzen behaketaz* saila margotzen hasi zen. Forma botanikoak irudikatzen dituzten akuarelak biltzen ditu multzo horrek, eta horietan naturako indar espiritualak erretratatu nahi izan zituen. Artistak bustia bustiaren gainean teknika erabili zuen lan horietan. Papera belaki busti batekin aurretik prestatu ondoren, akuarela aplikatzen zuen margoa askatasunez isur zedin eta koloreek bere kabuz motiboa sor zezaten.

### KATALOGOEA

Erakusketarekin batera argitaratu den katalogoak ilustrazio ugari biltzen ditu, ondorengo adituen saiakerekin batera: erakusketaren komisario diren Tracey R. Bashkoff eta Lucía Agirrerrenak, David Max Horowitz eta Julia Vossenak, Hilma af Klinten lana eta bizitza aztergai hartuta Europako XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasiera artean.

### DIDAKTIKA

Didaktika proiektuaren barruan, Museoak gune didaktikoak, eduki digitalak eta jarduera bereziak diseinatzen ditu erakusketa bakoitzaren osagarri izateko eta publikoari tresnak eta baliabideak eskaintzeko, ikusgai dauden artelanak balioesten lagundu nahian.

Erakusketa honen Didaktikaren izenburua *Garai batekin eta artista batekin topaketa* da Bertan, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran gertatu ziren eta Hilma af Klinten bizitzan eta haren ekoizpen artistikoan eragina izan zuten aldaketa sozial eta berrikuntza esanguratsuak deskubritu ahal izango ditu publikoak, besteak beste espiritismoa, teosofiaren goraldia, emakumeen eskubideen aldeko mugimenduak eta aurrerabide teknologikoak.

Esperientzia borobiltzeko Tracey Bashkoff arte-arduradunak partaide duen ikus-entzunezko pieza bat, Hilma af Klinten biografiaren laburpen bat eta kontsultatzeko eskura jarritako erakusketaren katalogoak eskainiko dira.



## Jarduerak

### Inaugurazio-hitzaldia (urriak 16)

Museoko entzungelan solasaldi bat izango da erakusketaren komisarioak diren Tracey Bashkoffen eta Lucía Agirrereren artean.

### Hausnarketa partekatuak\*

Bisitaldi hauetan Museoko profesionalak erakusketaren edukiei buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzte:

- Arte-arduradunen ikuspegia (urriak 23): Lucía Agirre, erakusketaren komisarioa eta Museoko arte-arduraduna.
- Funtsezko kontzeptuak (azaroak 6): Luz Maguregui Urquiza, Museoko Hezkuntza koordinatzailea.

\*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

### Bisita musikatuak (urriak 31, azaroak 14 eta 28, abenduak 19 eta urtarrilak 16 eta 30)

Bisita gidatu hauetan erakusketako artelan sorta baten aurrean XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako Europako musikaren testuingurua eta Hilma af Klinten eta musika-konposizioen arteko lotura ezagutzeko aukera eskainiko da, Patricia Sojo musikologoaren eskutik.

### Sormen-saioa: Lore-estanziozko tailerra (azaroak 21)

Hilma af Klintek naturaren eta sormenaren arteko lotura jorratu zuen haren margolanetan eta horretan inspiratutako tailerra osatu dugu, kolorea, naturako munduaren zaintza eta ongizatea funtsezko ideiatzat hartuta. Itziar Unzurrunzaga artistak emana.

### Proiektzioa: *Beyond the Visible* (abenduak 5)

2019an Halina Dyrskak zuzendutako dokumentala, abstrakzioaren aitzindari Hilma af Klintek egindako ibilbidea ezagutzeko.

## **Azaleko irudia:**

Hilma af Klint

*IX multzoa, SUW/UW saila, Beltxarga, 12. zk., 1915*

Olio-pintura mihise gainean

151,5 x 151 cm

Argazkia: The Moderna Museet, Stockholm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm, HaK 160

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024

**Informazio gehiago:**

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

Prentsak erabiltzeko irudiak  
*Hilma af Klint*  
Guggenheim Bilbao Museoa

### Prentsarako irudien online zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.eus](https://prensa.guggenheim-bilbao.eus)) erregistratu zaitezke bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistratu zaitezte eta behar duzuen materiala deskargatu.

Dagoeneko erabiltzaile bazarete, sartu zuen erabiltzaile-izena eta -gakoa, eta sarbide zuzena izango duzue irudien deskargara.

- Ematen diren irudiak *Hilma af Klint* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabil daitezke. Erakusketa 2024ko urriaren 18tik, 2025eko otsailaren 2a bitartean egongo da publikoarentzat zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, *copyrighta* eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri elektronikoko bitartez.
- Irudi orok 1.000 pizeleko bereizmena izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Online argitalpenean fitxategiak txertatuta egon behar du, deskargatzeko aukerarik gabe.
- Irudiak ezin zaizkio hirugarren bati helarazi, ezta datu-base batera transferitu ere.
- Azaletarako irudien erabilerak kostu bat izan dezake, eta beharrezkoa da alde zuzenetik obraren jabearen eta *copyrighten* titularraren baimena izatea.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Sailarekin +34 944 359 008 telefonoan edo posta elektronikoz: [media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

Hilma af Klint

*Udako paisaia (Sommarlandskap)*, 1888

Olio-pintura mihise gainean

88 x 148 cm

Dorsia Hotel, Gothenburg, Suedia

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024



Hilma af Klint

*Titulurik gabea, Bostak (Titel saknas, De Fem)*, 1908

Pastel lehorra eta grafitoa paper gainean

53,2 x 63,4 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm HaK 1252

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024



Hilma af Klint

*Jatorrizko kaosa, WU/Arrosa saila, I multzoa (Urkaos, Serie WU/Rosen, Grupp I), 15 zk., 1906–07*

Olio-pintura mihise gainean

52 x 37 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm, HaK 15

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024



Hilma af Klint

*Eros saila, WU/Arrosa saila, II multzoa (Erosserien, Serie WU/Rosen, Grupp II), 5 zk., 1907*

Olio-pintura mihise gainean

58 x 79 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm, HaK 31

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024



Hilma af Klint

*Figura-pintura handiak, WU/Arrosa saila, III multzoa (De stora figurmålningarn, Serie WU/Rosen, Grupp III), 6 zk., 1907*

Olio-pintura mihise gainean

162,5 x 139,5 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm, HaK 43

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024



Hilma af Klint

*Zazpi puntako izarra, WUS/Zazpi puntako izarra saila, V multzoa (Sjustjärnan, Serie WUS/Sjustjärnan, Grupp V), 2 zk., 1908*

Tenpera, gouachea eta grafitoa paper gainean, mihise gainean mutatua

75,5 x 62 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm, HaK 49

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024



Hilma af Klint

*Eboluzioa, WUS/Zazpi puntako izarra saila, VI multzoa (Evolutionen, Serie WUS/Sjustjärnan, Grupp VI), 16 zk., 1908*

Olio-pintura mihise gainean

102 x 133 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm, HaK 84

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024



Hilma af Klint

*Hamar nagusiak, Haurtzaroa, Titulurik gabea saila, IV multzoa (De tio största, Barnaåldern, Saknar seriebeteckning, Grupp IV), 1 zk., 1907*

Tenpera paper gainean, mihise gainean mutatu

322 x 239 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm, HaK 102

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024



Hilma af Klint

*Jakintzaren zuhaitza, W saila (Kunskapens träd, Serie W), 1 zk., 1913*

Akuarela, gouachea, grafitoa eta tinta paper gainean

45,7 x 29,5 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm, HaK 133

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024



Hilma af Klint

*Beltxarga, SUW/UW saila, IX/SUW multzoa (Svanen, Serie SUW/UW, Grupp IX/SUW), 13 zk., 1915*

Olio-pintura mihise gainean

148,5 x 151 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm, HaK 161

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024



Hilma af Klint

*Usoa, SUW/UW saila, IX/UW multzoa (Duvan, Serie SUW/UW, Grupp IX/UW), 1 zk., 1915*

Olio-pintura mihise gainean

151 x 114,5 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm, HaK 173

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024



Hilma af Klint


*Erretaula, Erretaulak, X multzoa (Altarbild, Altarbilder, Grupp X), 1 zk., 1915*

Olio-pintura eta metalezko xafla mihise gainean

237,5 x 179,5 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm, HaK 187

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024



Hilma af Klint

*Budaren ikuspuntua bizitza mundutarrean, II saila (Budhas ståndpunkt i jordelifvet, Serie II), 3a zk., 1920*

Olio-pintura eta grafitoa mihise gainean

37 x 28 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm, HaK 471



©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024

Hilma af Klint


*Pertzeval saila, III multzoa (Serie Parcifal, Grupp III), 121 zk., 1916*

Akuarela eta grafitoa paper gainean

25 x 27 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm, HaK 327

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024



Hilma af Klint

*Atomoa saila (Serie Atomen), 8 zk., 1917*

Akuarela, grafitoa eta margo metalizatua paper gainean

27 x 25 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm, HaK 360

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024



Hilma af Klint


*Titulurik gabea, Lore eta zuhaitzen behaketaz (Titel saknas, Vid betraktande av blommor och träd), 1922*

Akuarela paper gainean

18 x 25 cm

Eskaintza: The Hilma af Klint Foundation, Stockholm, HaK 615

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024



Argazkia: Hilma af Klint (1862–1944) artista suediarra, Hamngatango estudioan, Stokholmoen

Eskaintza The Hilma af Klint Foundation.

©The Hilma af Klint Foundation, Bilbao 2024

